

Elbire Zipitria, beti ikastolaz kezkatu

GOIZ-ARGI'ko langelara agertu zaigu IRA, «Irakurlearen Txokoa» saillerako bere salaketa zorrotz ekarriz. Egokiera ortaz ballatu nai izan dugu galdera batzuk egiteko.

Baiña nor dugu IRA ori? Zipitria'tar Elbire andereñoa, nolobait Andereñoen Andereño idatziz izan duguna. Askorentzat euskal-ikastolaren sortzailea, bera da ta ez besterik.

IRA berari galdetu diegu ta emen doaz erantzunak. Beste gauza gelago ere, oso jakingarriak, gelditu zaizkigu galdetzeko; eta beraz, jakiteke. Beste egunen batean....

— **Ikastolari buruz, zer esango zeniguke, gaurko askok ez dakigunik?**

— Orra bada! Ain zuzen, ba-daduzkat aspaldion bi gauza emen barruan, irten nairik, atximurka.

Bata: Omenaldi ta gorasarrez ia okiturik gauden garai ontan, iñork eta iñork ez aipatzen Munoa ta Pagadizabal'dar Mikel jauna, eta ua izaki Euskal-Ikastetxearen (Ikastola) sortzailea.

Orain ia 70 urte, Donosti'ko «Bizen-te Deuna» elizako sakristian «D. Migel» (ori esaten genion bere inguru-kuok) beste lagun batzuekin —Egino'tar Jose apaiza, gero Santander'en Gotzai izana, eta besteak— «Kristau-Ikasibdea» euskeraz irakasten ari oi zan mutil-sail bati. Baiña etzegon lasai gure «D. Migel»: «Kristau-Ikasibdea, otoitzak, e.a. euskeraz, eta gero elizkizunik txikiena ere ez euskeraz?»

Orixe zan aren kezka. Eta ortik jaio zan «Koru'ko Andre Mari'ren Ikastetxea», «D. Migel» berak izen ori eman ziona, eta bera da lenengo «Euskal-Ikastetxea» edo gaur Ikastola esanda ulertzen duguna. Gauza berezi ta go-goangarria, bertako ezitzaile guztiak irakasle-irakasle zirala, «tituludunak» alegia, ta ez bestelako. Ikastetxe au «Zubigain» kalean zegoen, gaur «Kaialde» dagon etxean.

Orra, bada, zein izan dugun, benetan, sortzailea: Muñoa ta Pagadizabal'dar Mikela jauna.

— **Baiña mutillentzat bakarrik al zan?**

— Geroxeago nexka-mutiko txiki-entzat «Ikatz-kalean» bata (gaur Juan de Bilbao) eta «Konstituzio Enparantzan» neskentzat bestea ere eraiki zituan, bi ikastola berri beraz. Otra beste arrazoi bat geiago, «Euskal-Ikastetxea»ren sortzailea «D. Migel» zala egizta-zeko.

— **Elizkizunak non egin oi zituzten?**

— Gaztelu-bideko «Santa Teresa»n

egiten zituzten, aurrena, euskerazko elizkizunak, parrokitik kanpora. Gero, mutikoen Ikastetxearen beeko oiñean jarri zuan elizatzko bat ederra, bere apaiz eta guzti.

— **Nolako elizkizunak?**

— Mezak, bederatziruunen bat, Aste Santukoak, e.a. danetik egin oi zituzten. Eta dana euskeraz, noski.

— **Ikasketak e.a. nola, aiek ere euskeraz?**

— Elizkizunak, Kristau-Ikasibdea ta jolas-aldiak uts-utsik euskeraz izaten ziran. Beste ikaskai guztiak, elebitzan: euskeraz eta erderaz, alegia. Ala ere euskera nagusi.

— **Lan bikain ori burutzeko, nondik lortzen zuten laguntza?**

— Au guztia, «D. Migel»ek iñolako ta iñongo laguntzarik gabe eraman zuan aurrera. Eta orduan ere bear zan dirurik! Ikastetxeak, Irakasleak e.a., dirutzat bear ziran. Baiña dana Muñoa jaunak egiten zuan, bere bizitza ta ondasunak «Ikastetxeari» lotuak bai-zeduzkan. Orduak eta orduak egiten zituan antxe, mutikoen artean, eliz-abestiak irakatsi ta bear zan guztia egiten. Beti mutikoen artean zan.

— **Zu ere an ibillia zaitugu, noski.**

— Bai, «Don Migel»en Ikastetxean egin nituan nere lenengo 10 urteak irakastetan. Guda makur arek ebaki zuan dana ta gu guztiok sakabanatu: «Don Migel», Irakasleak eta ikasleak. Ondaturik gelditu, zan Ikastetxearen bizitza, orduantxe galdu zan dana.

— **Eta bigarren gauza?**

— «Alderdi»k Bilbao'n zituan Ikastolak ere iñon eta iñon ez agertzen. Villalonga jauna eragille zutela, gaur ere Ikastola eredu ditugun «Euskal-Ikastetxe» aiek ere iñork eta iñork ez aipatzen.

— **Eta ain eredugarri iruditzen al zaizkitzu?**

— Begira, Villalonga jaunak, Euro-

pa'ko errialde aurreratuenetako Ikastetxeak ikertu ondoren —sena ere ba-zuan ortarako— irakasbide ta ezikera jatorrenak, aurreratuenak jarri zituan «Alderdi»ren Ikastoletan, batez ere Bilbao'n. Eta ortan buru-belarri ibilli zana, beste zenbaitekin batera noski, Villalonga jauna izan zan. Azkenean, «Euzko Alderdi Jeltzalea» bera zan «Euskal-Ikastetxe» aiek jarri zituana, ori bai, Villalonga ta bere lagun bi-dez.

— **Esango al zeniguke gauza bereizgarriren bat?**

— Irakaskintza ta Eziera euskeraz ematea zuan, jakina, bereizgarri bat oso garrantzizkoa. Baiña ba-zuan beste bat ere, ta ez nuke aipatu gabe utzi nai. Auxe da: norbaitek «Euskal-Ikastetxe» aietan ezitzaile sartu nai baldin ba'zuan, irakasle «tituluduna» izatez gainera, azterketa gogor xamarrek gainditu edo igaro bear zituana. «Anderak» esaten zieten irakasle aieri.

— **Ortan borobiltzen al dituzu, esan bearreko gauza biak?**

— Bai, laburki esanda, ortantxe. Orra orain nere barrena lasaitu, aitorpen bikoitz ori eginda gero.

— **Gaurko ikastolari buruz, zer esango zeniguke?**

— Ara, lan bat ba-dadukat galdera orri erantzuteko, baiña erderaz dago. Arako «Inspección» izenekoak eskatuta egiña dut, Ikastola legepean sartu zanean, eta erderaz bear. Ekarriko nizuke lan ori, zuek egoki ba'derizkiote argitaratzeko. Min izango nuke GOIZ-ARGI'k erderaz argitaratu bearra, baiña... Ortze ageri dira guk egiten genituan eziketa-lanak.

«ESCUELA PARROQUIAL» Santa María (Subida al Castillo)


San Sebastián

ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES

Hace más de 20 años que iniciamos el ensayo de nuestra escuela encarnada en la vida, encarnada en la realidad, sin abandonar el hogar, sin locales especiales.

Desde entonces hemos dedicado siempre una sesión semanal a las que hoy se llaman actividades extraescolares. Durante años, mientras fue vacación la tarde del jueves, la mañana de este día la dedicábamos a dichas actividades. El año pasado tuvimos que trasladar esa sesión a la tarde del miércoles y al comienzo de este curso a la mañana del sábado. Hecho el tanteo decidimos dar día entero de vacación un sábado al mes.

Esta sesión semanal de actividades extraescolares



lares no era obstáculo para que cualquier otro día saliésemos de casa en busca del material que ni en casa, ni en ningún centro docente puede darse.

Un día «de arribada» no puede desperdiciarse en la Parte Vieja. El espectáculo que se contempla desde La Muralla o desde el Paseo de los Curas es ocasión única para la maestra que sabe aprovecharla.

«Estimulando y encauzando el deseo espontáneo del niño hacia el conocimiento del medio natural y social que le rodea» (1) la vista de nuestro Muelle repleto de barquitos de colores puede servir de base a un ejercicio de lenguaje, de ciencias naturales, de tecnología, de religión y formación cívico-social, de matemáticas. Y ¡qué dibujos más encantadores presentaban las niñas y los niños al día siguiente en el bloc!

Antes y ahora hemos disfrutado siempre para nuestra labor de una situación local privilegiada: la Parte Vieja de San Sebastián. Un parque natural a la puerta, el Monte Urgull, y desde el que se pueden apreciar a simple vista todos los accidentes geográficos básicos. El Muelle con su Aquarium, La Concha, el parque Alderdi-eder, el Urumea, el Paseo Nuevo, el Océano inmenso, todo a menos de cinco minutos.

La Pescadería, el Mercado de la Brecha, todo tipo de comercios, numerosos talleres pequeños, carpinterías, herrerías, linterneras, zapaterías, todo lo necesario para la asimilación de las nociones básicas del comercio e industria.

Y ¿para la formación artística? El conjunto formado por nuestras dos viejas Parroquias San Vicente y Santa María, el Museo de San Telmo, el Ayuntamiento, la Diputación con sus hermosos jardines, el Teatro Victoria Eugenia, es un conjunto de imágenes familiar a nuestros pequeños.

¿Y todo lo que contemplan desde los cuatro años en y desde los paseos y cumbre del Castillo?

Hemos procurado siempre la integración armónica de nuestras actividades pensando que nuestro sistema de educación tenía que ser una unidad funcional en la que «todo está en todo».

El cumpleaños de cualquiera de los alumnos es motivo para hacerles vivir la frase bíblica: «Crecía en edad y sabiduría delante de Dios y de los hombres». Como ese día siempre trae el festejado, o festejada, una bolsa grande (conjunto) de caramelos para obsequiar a sus compañeros se presenta también la ocasión de enseñarles a adquirir hábitos sociales. Y ¿qué mejor medio de

hacerles inventar problemas de matemáticas, modernas inclusive, que el reparte de caramelos?

Imposible, pues, atrasar la fiesta al sábado.

Nos es difícil precisar entre nuestras actividades las horas lectivas puramente para salirnos de ellas.

En este momento, para poder presentar en ocho días a esa Inspección un plan concreto y preciso de nuestras actividades extraescolares de los sábados, se nos presentan serios obstáculos: Nuestro expuesto sistema de educación, fin de trimestre cargado de tareas de revisión para ver si se han cumplido los objetivos, y, sobre todo, ser éste el primer curso de adaptación a clases de 30 alumnos de la labor realizada hasta ahora con grupos de diez como máximo.

A fin de curso podríamos hacer una exposición de las actividades llevadas a cabo durante el mismo en las mañanas de los sábados.

El equipo de profesorado

(1) Del Libro Bases para una política educativa, Segunda parte. Educación General Básica. Etapa de iniciación.

— **Eta zer esan zizun «Inspección» dalakoak?**

— «Inspekzioak» etzuan gaitzetsi lan ori. Eta etzizkigun debekatu gure irakasbide ta eziketa bereziak: etzizgun galerazi gure saiaketa.

— **Eta zertan duzu orain zure jarduketa?**

— Begira, «Inspekzioak» etzidan debekatu nere jarduketa edo «esperientzia»: nere irakasbide ta eziketa bereziak alegia. Baiña aurreneko lkastaroa, lau urteko aurtxoekikoa bakarrik egin aal izan nuan; 5-6-7 ta 8 urtekoekin jarraitzea galerazi egin zidate beste norbaitzuek.

— **Nortzuek galerazi zizuten eta zer-gatik?**

— Gai ontaz itz-erditxo bat geiagorik ez dígu erantzun IRA'k, ilun-illun.

GAZTAÑAGA'tar Jesus

ZUZENDARITZA:

J.A. Elustondo

A. Miner Goikoetxea

BANATEGI TA DIRU-ERAGINTZA:

Goiz-Argi. Guetaria, 21, bajo.

Urrut. 428459

DONOSTI

IRARKOLA:

Iparraguirre, S.A.

C/ Galdácano, s/n

Depósito Legal: 1.078/69

BILBO

Ez Goiz-Argi au berau, ezta Zuzendaritza ere, ez dira asteroko ontan agertzen diran lanen jabe egiten.

Goiz-Argi'n agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak, beren egilleak izango dira.